

1. SARRERA

Jakina, kultur eta hizkuntz aniztasuna fenomeno zaharrak dira. Areago, kultur aniztasuna eta hizkuntz aniztasuna mendeetan izan dira Euskal Herrian, beste hainbat herritan bezala. Hala ere, gure historiari hurbilenera mugatzen bagara, hizkuntz eta kultur heterogeneotasun hori azken hamarkadan agertu da herritarren kontzientzian, estatuaz kanpoko etorkin kopurua handitu izanaren ondorioz batik bat. Izan ere, estatuez kanpoko etorkinek arrotzak zaizkigun kulturak eta hizkuntzak ekarri dituzte, gutxiengo sozial berriak eratu dira eta hainbat mailatan tratatu behar diren egoera eta behar berriak sortu dira; alabaina, horren guztiaren erantzunak ez dira aurrez ikusi.

Egokiro tratatu ezin diren egoera guztietan bezala, egoera honetan ere bada gatazkarik. Egun, harrera egiten duen gizarteak (euskal gizarteak) etorkinak ez ditu berdintzat balioesten oro har. Bederen, ez ditu berdintzat hartzen herrialde jakin batzuetatik etorri diren etorkinak, adibidez, Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetatik datozenak. Euren ekarpena maila guztietan egin nahi duten eta, horrenbestez, bertako herritarrek dituzten betebeharrak, eskubide eta aukera berak dituzten edo izan beharko lituzketen herritar berritza hartu beharrean, ez dagokien zerbait hartu edo, are gehiago, ostera besterik etorri ez diren pertsonatzat jotzen ditugu. Hartara, badirudi bizimodu duinagoaren bila edo, besterik gabe, bizirik jarraitu nahian emigratu behar izan duten eta emigratu behar duten euskal herritar ugariak ahaztu ditugula.

Dudarik gabe, gizartearen kontzientzia errotik aldatu behar da. Esparru juridikoan eta lege esparruan sartu ezean, etorkinei (batik bat, jatorri geografiko eta sozioekonomiko jakin batzuetakoei) buruzko ikuskera negatiboa aldatu beharra dago. Izan ere, horixe da bide bakarra kultura arteko planteamendu gizarteratzailea, banakoen eta taldeen kultur nortasuna mantentzea bermatuko duena, lortzeko bidean aurrera egiteko bide bakarra, kultura arteko harreman positiboak bilatu eta balioesten ditugun aldi berean. Kultur artekotasuna baldintza beretan dauden izakien arteko eraginean oinarritzen da baina, horretarako, berdintasunaren gaineko kontzientzia landu behar dugu, inola ere ez dugulako halakorik oraindik. Horrenbestez, kultur aniztasuna egon badagoela onartzen hasi behar dugu eta, ondoren, berau onartu eta errespetatu. Espero dugu etorriko direla etorri beharrekoak.

Jakina, esperantzaz gain, lan jarraitu eta iraunkorra ezinbestekoa da, esperantza hori bete egingo bada. Kultur artekotasuna lortzeko beharrezko aldaketak ez dira egun batetik bestera gertatzen; aitzitik, ziur asko luzea izango den prozesuaren ondorioz jazoko dira, eta hezkuntza eta balio kontua da hori batez ere. Alde horretatik, gogoan izan beharra dago hezkuntza gizarte eginkizuna dela eta, hortaz, gizarte osoaren erantzukizuna dela, ez dagokiola hezkuntza arloko arduradunei bakarrik. Balioei dagokienez, gure eguneroko jarduna analizatuz hasi behar dugu, hitzez aldaketa ekartzen lagundu beharko luketen balioen (errespetuaren, elkartasunaren, elkarren arteko eraginaren, kideatasunaren...) alde egiten badugu ere, oso bestelako balioak (bereizkeria, bazterketa, indibidualismoa, lehia, etab.) aplikatzen ditugulako praktikan.

Edonola ere, gizarte osoaren erantzukizunaren eta lanaren bitartez, hezkuntza arloko erakundeek hartu ahal (eta behar) dute euren gain, beste instantzia batzuekin bat, aldatzeko ekimena. Ekimena gauzatu egingo bada, ostera, gizarteak baliabide ugari (giza baliabideez, baliabide materialez eta hezkuntza arloko baliabideez) hornitu behar ditu erakundeok, egin beharreko lana egiteko, hezkuntza erkidegoen, etorkinekin lan egiten duten elkarrean eta alor honetako profesionalen prestasuna eta elkarlana (oro har, borondatezkoa) baino gehiago behar delako nabarmen.

2. KULTUR ANIZTASUNA ETA HEZKUNTZAREN ERREALITATEA

Gure ustez, kultur aniztasuna hezkuntzaren printzipioa da (edo izan beharko litzateke). Besteak beste, bizikidetasuna, kritikotasuna, elkartasuna, lankidetzeta eta aukera berdintasuna sartzen dira printzipio horren barnean, banakako desberdintasunen eta desberdintasun ideologikoen, erlijiosoen eta kulturalen onespenean, errespetuan eta aberastasunean eta horiek guztiek hezkuntza arloan eta gizarte aldatzeko eskaintzen dizkiguten aukeretan oinarrituta betiere.

Hala ere, jakin badakigu nazio estatuetakoko hezkuntza sistemak hizkuntz eta kultur homogeneousasuna lortzeko sortu zirela eta, oraindik, horixe dela helburuetako bat. Euskal Herriko hezkuntza Frantziako eta Espainiako estatuak arautzen dute eta, bertako sistemak hartzen baditugu eredutzat, baina, “nazio bat, herri bat, hizkuntza bat, kultura bat” asimilazioaren bitartez lortzeko ahaleginak porrot egin du. Dena dela, kontuz ibili behar da, porrot hori nabarmena izan arren, asimilazio estrategia horrek oso ondorio larriak izan dituelako, hala politika eta gizarte arloan, nola euskal kulturaren eta hizkuntzaren garapenari dagokienez. Izan ere, gure herria, hizkuntza eta kultura desagertzeaz daude, eta konpontzen zailak diren gatazkak ditugu.

Hausnarketa hori egin dugu, asimilazio estrategien inertziak Euskal Herriko ikastetxeetan islatzen ari direlako, ikasle etorkinen tratamenduan. Gure ikastetxeetara heltzen diren ikasle etorkinen kopurua gero eta handiagoa da baina, herritar berri horiek erabateko berdintasunean gizarteratuko dituzten plan eragingarrietan inbestitu beharrean, hezkuntza arloko agintarien politika (edo politikarik eza) ez da batere eragingarria izan, eta asimilazioaren aldeko planteamenduak ekarri ditu eta bazterketa areagotu besterik egiten ez duten ghettoak sortu dira. Salbuespen eskas batzuk izan ezik, etorkinen gizarteratzea eta hizkuntz eta kultur aniztasuna tratamendua atzera-aurrera kudeatu eta tratatu da. Argia eta garbia da hezkuntza planteamendu gizarteratzaile orokorrak ahalbidetuko dituen ikerketarik, plangintzarik eta proiekturik eza baina, antolakuntza eta pedagogia arloko aldaketak ekarriko dituzten neurriak onartu beharrean, egoerazko konponbideak nagusitu dira.

Hizkuntz integrazioari eta etorkinek euskara normalizatzen duten eginkizunari dagokienez, estatuetakoko asimilazio politikak ere eman du fruiturik. Euskara hizkuntza ofiziala den Euskal Herriko lurraldeetan ere, etorkin gehienak bertako biztanle gehienek arbuia dituzten hizkuntz ereduetan eskolatu dira eta, hartara, bazterketan eta aukera berdintasunik ezean sakondu da, eta, euskara hizkuntza ofiziala ez den lurraldeetan, zer esanik ez. Gainera, kontuan izan behar da oztipoa dela hori euskara normalizatzeke.

Bestalde, ikasle etorkinek euren jatorrizko hizkuntza lantzeko behar afektiboa eta kognitiboa ere ez da kontuan izan. Alde horretatik, Ignasi Vilaren hitzei lotu nahi gataizkie; harekin bat, eskolak kontuan izan behar du ikasle etorkinen jatorrizko hizkuntzak ezin direla eskolako jardunean barneratu sistemaz, baina haien presentzia ezinbestekoa da ikasleon garapenean. Presentzia hori hainbat strategiaren bidez gauzatu behar da, hezkuntza arloko jardunari ikasle hauek ekarritako elementu berri hau gehituz: hizkuntza (Vila, 1998; 2000)¹.

Horregatik guztiagatik, badirudi nabarmena dela hezkuntzaren alorreko erakundeek hizkuntz eta kultur aniztasunari egungoa baino askoz ere ikuspuntu zabalagotik heltzeko erronkari erantzun behar diotela, planteamendu gizarteratzaileak oinarri dituen hezkuntzaren ikuskera berri batetik, eta, ondorioz, orain arte aintzat hartu ez diren zenbait elementu hartu behar dituztela kontuan.

3. KULTUR ANIZTASUNAREN TRATAMENDUA EUSKAL CURRICULUMEAN

Adierazi dugunez, kultur arteko hezkuntza lortuko badugu, hezkuntza arloko egungo planteamenduak sakonki aldatu behar dira. Alde horretatik, atal hau “Nahitaezko eskola aldirako euskal curriculumaren esparru dokumentuak” (eztabaidatu egiten ari den dokumentuak) aniztasunari, kultur artekotasunari

¹ Vila, I. (2000). *Enseñar a convivir, enseñar a comunicarse*. Textos, 23, 23-30.

Vila, I. (1998). *Minorías culturales y escuela: una aproximación educativa*. Cuadernos de Pedagogía, 311, 71-75.

edota gizarteratzeari buruz ematen duen ikuskera nola edo hala erakusten duten erreferenteak biltzen ahalegindu da.

Euskal curriculumari buruzko esparru dokumentuaren lehen orrialdeetan berariaz aipatzen da kultura. Pertsona ezagunen edo erreferentziazkoak diren adierazpenetako hitzak erabiliz, giza eskubideak eta kultur eta hizkuntz eskubideak, kultur aniztasuna eta batasuna, oinarritzko askatasunak, duintasuna... aipatzen dira. Aipamen horiek guztiak kultur aniztasunaren ingurukoak dira, eta euskal curriculumaren proiektuaren funtsa justifikatzeko erabiltzen dira, kultura eta herri bakoitzak bere curriculuma izateko eskubidea eta erantzukizuna duela erakusten dutelako. Hona hemen dokumentuko bi pasarte gai honi buruz (5. eta 7. orr.):

“Egokia litzateke batasunaren barnean sartzen den aniztasuna bermatu eta ahalbidetuko duen batasuna sortzea. Batasuna eta elkartasuna funtsezkoak dira, fenomeno bikoitza diren aldetik. Kulturak giza nortasunari eusten dio, bere espezifikotasunari, eta kulturek nortasun sozialen espezifikotasunari eusten diote. Hartara, kultura kulturetan presente dago beti, **baina Kultura kulturen ekarpenei esker baino ez da existitzen** (Morin, 2000:57)”.

“Kultur aniztasunaren alde egitea agindu etikoa da, gizakiaren duintasunetik bereizi ezin dena. Horretarako, giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak errespetatzeko konpromisoa hartu behar da, gutxiengoetako eta herrialdeetako bertako herrietako kide diren pertsonenak batez ere (Hizkuntz Eskubideen Adierazpen Unibertsala, 1996: 4. art.)”.

Espero izatekoa da aipamen horiek ez direla biltzen euskal herritarrek euren curriculuma eraikitzeo eskubidea justifikatzeko soilik, kultura oro tratatzean jarraitu beharreko ildoak finkatzeko ere baizik. Ildo horretan, 7. orrialdeak egiten du lehenengo aipamena euskal curriculumak hizkuntzen eta kulturen aniztasunaren alorrean egin nahi duen ekarpenari buruz:

“Euskal curriculumaren proiektuak euskara eta euskal kultura espezifikoa hizkuntz eta kultur aniztasunaren esparruan indartzeko balioko duen ekarpena izan nahi du”.

25.-27. orrialdeetan, berriz, dokumentuaren egileek hezkuntzaren azken helburua eta curriculumaren oinarri planteatzen duten pertsonaren, gizartearen, naturaren eta bizikidetasunaren ikuskera argitzen dute eta, horien guztien bitartez, kultur aniztasuna eta kultur aniztasunari heltzeko aplikatu beharreko planteamendua aipatzen dute:

“Hezkuntzaren helburua pertsonaren erabateko garapena lortzea da, pertsonaren hiru aldeetatik, alegia, banako, gizarteko kide eta naturako kide den aldetik:

Banakoa dela-eta, hezkuntzaren eginkizunak gizarteratze prozesuen eta kultur edukien analisi kritikoa izan behar du ezaugarri. Aldi berean, baina, autonomia eta norbere nortasuna ez dira garatzen ingurunerik gabeko arrazionaltasun abstraktuari jarraiki, historia eta kultur ingurune jakin baten barnean baizik. Helburua banako bakoitzak bere biografia autonomiaz osatzea da, eskura dituen kultur erreferente guztien bitartez.

Gizarteari dagokionez, kultur integrazio gizarteratzailea proposatzen dugu bizikidetasunaren eredutzat, hots, aniztasuna eta batasuna batzen dituen bidea: alde batetik, batasuna, euskara eta euskal kultura Euskal Herrian bizi garen kultur talde guztien ondare komuna dela baina, aldi berean, batasunak irekia eta aldakorra izan behar duela kontuan izanik, eta, beste alde batetik, aniztasuna, kultur arteko bideez baliatzen garelako talde bakoitzaren nortasuna errespetatu, ezagutu eta balioesteko. Oinarrian dagoen ideia da norbere burua euskaldun sentitzeak ez duela zertan beste nortasun bat izatearekin bateraezina izan behar.

Azkenik, **natura** dela-eta, giza ezaugarriak ulertu eta gizakia zer den planteatzen duen galderari erantzuna emate aldera, beharrezkoa da gure naturak elkarren artean barneratzea”.

Curriculum proposamenak oinarritzat eta ardatz nagusitzat duen planteamendu filosofiko eta teorikoan irakurritakoa ez dirudi kultur arteko planteamendu gizarteratzailearen aurkakoa denik. Nolanahi ere, proiektua gartzean zehaztu beharreko printzipioak dira, aurrez esan dugunez. Alde horretatik, esparru dokumentuak beste zehaztaperen maila bat proposatzen du eta, maila horretan, hezkuntzaren bidez landu beharreko gaitasun nagusiak ezartzen dira, baita gaitasun horiek lantzeko modua gauzatu behar duten jakintza arloak ere. Kultur aniztasuna “elkarrekin bizitzen ikasi” izeneko gaitasun orokorraren barnean sartzen da, eta gai horretan sakontzeko jakintza arlorik egokiena “mundu ikuskera eta erlijioak” da.

Hala ere, kultur integrazioaren tratamendua, teorian bederen, egokia ala okerra den aztertzeko, beste zehaztaperen maila batera iritsi beharko genuke: gai honi jakintza arlo guztietan ematen zaion trataera aztertu beharko genuke, kulturak integratu eta elkarrekin bizitzen ikastea jakintza arloez haraindiko gaitasuna delako argi eta garbi eta, ondorioz, hezkuntza arloko jardun orokorrean txertatu eta jakintza arlo guztietan islatu behar delako. Txosten honen helburua eztabaida piztea da, ordea, eta ez txostena, ez txostengilearen gaitasuna ez dira nahikoak horretaz guztiaz aritzeko.

Gainera, ezin ahaztuzkoa da teorikoki dena dela bideragarria. Azkenean hitzartzen den curriculumaren planteamenduak kultur artekotasunean eta gizarteratzean aurrera egiten lagunduko duen jakite aldera, ordea, ikasgelako eguneroko jardunean aplikatu behar da. Egia esan, hainbeste itzulingururen ondoren, horrexetara (ikastetxeetara eta ikasgeletara) heldu nahi nuen nik. Zer egin dezakegu guk geuk euskal curriculumaren proiektuak, ikasgeletan aplikatzen denak kultur arteko planteamendu gizarteratzaileak izan ditzan zinez?

Zalantzarik gabe, gai ugariz mintza gintezke. Hezkuntza arloko erkidegoaren eta, batez ere, irakasleen trebakuntza beharrez mintza gintezke, ikasle berrien eta euren familien beharretara egokitutako harrera planez, hizkuntz plangintza espezifikoetz eta harrera gelez, etorkin erkidegoek ikastetxeetan bete behar duten eginkizunaz, eskolan lehenago finkatu den erkidegoak gizarteratze prozesuan bete behar duen eginkizunaz, ikastetxeko hezkuntza eta curriculum proiektuez... Milaka gauzaz mintza gintezke eta, egia esan, horixe egin behar dugu, baina ez gaur, lantzen ari garen gaitik aterako ginatekeelako.

Euskal curriculumaren proiektuaz mintzatzea dagokigu gaur, ostera, curriculumaren aurkezpenak eta aplikazioak kultur integrazioan aurrera egiten lagun dezaten egin daitekeen ekarpenaz. Alde horretatik, curriculum hezkuntza arloko planteamendu orokorra da funtsean, hezkuntza gaitasunak eta edukiak (hala ezagutu beharreko kontzeptuei, nola jarraitu beharreko prozedurei eta landu beharreko jarrerai buruzkoak), eta, ildo horretan, bizpahiru galdera datozkit burura:

- Zer falta du (edo zer du sobera) euskal curriculumari buruzko proposameneko hezkuntza arloko proiektu orokorrak kultur arteko bokazio gizarteratzailea islatzeko?
- Zer kontzeptu, prozedura eta jarrera landu beharko genuke lehentasunez gizarteraren kontzientzia zinez aldatzen aurrera egiteko?
- Zer hezkuntza gaitasun (orokor eta espezifiko) landu beharko genuke sakonkiago gure xedeak lortzeko?